



prentsa oharra / nota de prensa

Mutualiak 125. urteurrena ospatu du; 445.000 langileri baino gehiagori ematen dio estaldura

- Mutualiak Euskadiko langileen % 46 baino gehiago babesten ditu.
- 2024an 380.000 asistentzia sanitario baino gehiago eman ditu, eta 326 milioi euro ordaindu ditu prestazio ekonomikoetan.
- Asistentzia sanitarioa jaso duten pertsona guztien % 94,4 pozik edo oso pozik daude.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 18a

Mutualiak, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. zk.ko Mutualitateak, Ohiko Batzar Nagusia egin du, eta, bertan, 2024ko ekitaldiko balantze ekonomikoa eta jarduera onartu ditu. Ignacio Lekunberri zuzendari-gerentearen arabera, ez da soberakinik izan lanbide-gertakarien eta gertakari arrunten kudeaketan; izan ere, gertakari arrunten kudeaketak izandako emaitza negatiboa finantzaketa gehigarriarekin orekatu da. Hala ere, Mutualiak 2,4 milioi inguruko ekarpena egingo dio Gizarte Segurantzari, jarduera utzi duten langile autonomoen kudeaketak izandako emaitza positiboa dela eta. Gertakari arruntengatiko prestazioen kopuruak gorakada nabarmena izan du, eta oraingoan ere hori izan da ekitaldiko ezaugarri nagusia.

Batzar Nagusian, lortu diren Plan Estrategikoko helburuen garrantzia azpimarratu du Mutualiako presidente Urtsa Erraztik, baina oso kezkatuta agertu da Euskadiko langileen baja-egunen kopuruaren bilakaerarekin, Estatuko gainerako lurraldeetan baino handiagoa baita.

Batzar Nagusia berezia izan da oraingoan, Mutualiak 125 urte betetzen baititu aurten. Horregatik, Urtsa Erraztik La Previsora mutualitatearen sorrera gogoratu nahi izan du (1900eko martxoan), baita Seguros Mutuos de Vizcaya mutualitatearena ere (urte bereko apirilean), Mutualiaren jatorrizko mutualitateak biak. Gainera, adierazi du EAEko



prentsa oharra / nota de prensa

enpresek erantzukizunez eta azkar erantzuten jakin zutela industria-iraultzak eragindako gizarte-eraldaketaren ondoriozko kalteberatasun-egoeren aurrean.

Batzar Nagusiaren ondoren, ekitaldi xume bat egin da urteurrena ospatzeko, eta Mikel Torres lehendakariordea ere izan da bertan (amaiera eman dio ekitaldiari).

Batzar Nagusia Mutuialiak Gasteizen duen Bereizmen Handiko Ospitaleko ekitaldi-aretoan egin da, eta ingurumen-neurriak txertatu dira haren diseinuan eta antolakuntzan, Erronka Garbia metodologiari jarraituz; izan ere, prozedura horri esker ahalik eta gehien murrizten da ekitaldiek ingurumenean duten inpaktu negatiboa.

Editoreentzako oharra:

Mutuialiaren, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. zk.ko Mutualitatearen, helburua da enpresa kideetuei eta pertsona babestuei zuzendutako zerbitzu sanitarioak, prestazio ekonomikoak eta prebentzio-jarduerak kudeatzea. Mutuialiak 640 langile baino gehiago ditu plantillan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan betetzen du batik bat bere jarduera; 3 ospitale eta 15 zentro asistentzial ditu bertan, eta 445.000 pertsonari baino gehiagori ematen die estaldura.

Informazio gehiago:

Juan Villar

Komunikazioko zuzendaria
Director de comunicación

669891210